



Anaitasuna KKAE-ko Arau-betetze eta Jokabide egitasmoa (Compliance)

1. Sarrera

Anaitasuna KKAE-ko Arau-betetze eta Jokabide egitasmoak (Compliance) Zuzendaritza-batzorde, Gerentzia, langileria, bazkide eta kolaboratzaileen jardura orok indarrean dagoen legedia, printzipio etiko eta Elkartearen funtsezko baloreak bete ditzan du helburu. 7.000 bazkide baino gehiagoko oinarri soziala duelarik, kudeaketa egokia eta gardentasuna ezinbestekoak dira konfiantza mantentzeko eta entitatearen funtzionamendu egokia bermatzeko.

Compliance honek ez dio araudi legalaren konplimentuari heltzen soil-soilik, baizik eta kultura etiko baten garapenari ere, zeinean Elkartearen erabaki eta ekintzak denon interesa bilatuz bideratzen diren, interes-gatazkak eta baliabideen erabilera desegokia saihestuz, eta ingurune bidezko eta inklusibo bat ziurtatuz.

2. Aplikazio-alorra

Dokumentu honi Zuzendaritza-batzordeko kide, Gerentzia, langileria, bazkide edo Elkartearekin kontratu- edo merkataritza-harremanen bat mantentzen duen entitate edo pertsona oro atxikitzen zaio. Jarduera-esparru guztiak betetzen ditu, administratibotik eta finantza- zein ondare-kudeaketatik hasita, kirol-jarduera eta jarduera sozialetaraino.

2.1 Erantzukizun partekatua

Kide, zuzendari, kudeatzaile eta kolaboratzaile guztiek ezartzen ahal zaizkien barne eta kanpo arauak ezagutu eta errespetatzeko ardura izango dute. Compliancearen arau-hausteez zigorrak izango dituzte ondorio, hauen larritasunaren arabera.

2.2 Zuzendaritza-batzordearen Aitzindaritza eta Konpromisoa

Zuzendaritza-batzordeak Compliance honen inplementazioa, jarraipena eta etengabeko hobekuntza zuzentzeko ardura dauka. Gerentziak Elkarteko langile eta kolaboratzaileek ezarritako politikak jarrai ditzaten ziurtatzeko eginkizuna izango du, haiek betetzeko beharrezko baliabideez hornituz.



3. Elkartearen Printzipio Etikoak eta Baloreak

3.1 Gardentasuna

Zuzendaritza-batzordeak harturiko erabaki gako guztiak argiak eta dokumentatuak behar dute izan. Bazkideek finantza- eta kudeaketa-txostenetara sartzea edukiko dute, bai eta 10.000€ gainditzen dituzten zerbitzu emateen eta ondasunen eskuratzeen kontratuei buruzko informaziora ere (aldizkako jai edo ekitaldietarako erositako produktu galkorren kontsumoa salbu).

3.2 Erantzukizuna

Zuzendaritza-batzordeak eta Gerentziak ANAITASUNA KKAE-aren onerako jardun beharko dute, aurrekontuaren printzipioak errespetatuz eta baliabideen kudeaketa eraginkorra bermatuz.

3.3 Inpartzialtasuna

Erabakiak hartzerakoan edozein interes-gatazka saihestu behar da eta zuzendariek objektibitate osoz jokatu beharko dute, beti Elkartearen interesa kontuan hartuz eta ez beraiena propio.

3.4 Eraginkortasuna

Bazkideen ongizatea maximizatzeko xedearekin, Elkarreak bere baliabideak modu eraginkorrean kudeatu behar ditu, kostuak optimizatuz eta aktiboen erabilera arduratsua sustatuz.

4. Arau-betetzea

Elkarreak ezartzen zaizkion tokiko araudiak, autonomikoak, nazionalak eta europarrak bete behar ditu, honako hauek nabarmentzen direlarik:

1. Araudi fiskala eta kontabilitatekoa



- **Irabazi-asmorik gabeko entitateen erregimen fiskalaren eta mezenasgoaren pizgarri fiskalen abenduaren 23ko 49/2002 legea:**

Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako berriazko erregimen fiskala eta emariei zein babesleei ezartzen zaizkien etekin fiskalak arautzen ditu. 6/2023 Errege Dekretu Legeak aldaturikoa.

- **Erabilgarritasun publikoko elkarteei buruzko prozeduren inguruko abenduaren 19ko 1740/2003 Errege Dekretua:**

Erabilgarritasun publikoko erregimenari heldu nahi dioten elkarteei zuzentzen zaie.

- **1/2002 Lege Organikoa:**

Elkarretaratze eskubidea arautzen du. Elkarteen betekizun legalak zehazten ditu, irabazi-asmorik gabeko entitateak barne, beren sorrerari, inskripzioari eta funtzionamenduari dagokionean.

- **Kontu-ikuskapenaren 22/2015 Legea:**

Irabazi-asmorik gabeko entitateak kontu-ikuskapenak egitera derrigortuta daude zenbait irizpide betetzen badituzte, hala nola, urteroko irabazien bolumena.

2. Datu-Babesa

- **Datu-Babesaren (UE) 2016/679 Araudi Orokorra (RGPD):**

Datu pertsonalak maneiatzen dituzten entitate guztiei aplikatzen zaie, erakundeentzako betekizunak ezartzen dituzten kudeaketari eta datu-babesari dagokienean.

- **Datu Pertsonalen Babesaren eta Eskubide Digitalen Bermearen abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (LOPDGDD):**

Espanian RGPD-a osatzen du eta eskubideak eta betebeharrak gehitzen ditu.



3. Lan Araudia

- **Langileen Estatutuaren Legearen testu birmoldatua baiesten duen urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea:**

Espanian langile guztiei aplikatzen zaizkien lan-eskubide eta -betebeharrak arautzen ditu.

- **Anaitasuna K.K.A.E-ko enpresen hitzarmen kolektiboa:**

Bere langileen lan-baldintzak arautzen ditu. Bertan islatzen ez denari, Nafarroako kirol instalazioen eta gimnasioen hitzarmen kolektiboa ezarriko zaio, edota honen ezean, kirol instalazioen eta gimnasioen estatu mailako hitzarmen kolektiboa.

- **Kirol instalazioen eta gimnasioen estatu mailako hitzarmen kolektiboa:**

Sektore zehatzaren menpe egon arren, kirol instalazioek langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmen kolektibo hau bete behar dute.

- **Nafarroan lan arriskuen prebentzioari buruzko ekainaren 20ko 10/1997 Foru Legea:**

Nafarroan laneko segurtasuna eta osasuna arautzen ditu.

4. Ondasunen Zuriketaren Prebentzioa

- **Ondasunen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioaren apirilaren 28ko 10/2010 Legea:**

Ondasunen zuriketa ekiditeko kontrolak ezartzera derrigortzen ditu entitateak, irabazien eta babesen kudeaketan batik bat.

5. Adingabeen Babesa

- **Adingabeen babes juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa:**



Adingabeen eskubideak eta babes arautzen ditu, parte hartzen duten kirol jardueretarako berariazko xedapenak barne.

5. Protección del Menor

- **Biolentziaren aurkako haurtzaroaren eta nerabezaroaren babes integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa:**

Tratu txarrak eta biolentzia prebenitzeko, adingabeekin lan egiten duten entitateentzako betekizunak sartzen ditu.

- **Haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubide eta bermeen abenduaren 3ko 14/2010 Nafarroako Foru Legea:**

Nafarroan, lege honek adingabeen eskubideak arautzen ditu eta kirol klubek babes neurriak izateko betebeharrak indartzen du adingabeek kirol jardueretan parte hartuz gero. Adingabeekin lan egiten duten pertsonak kirol inguruetan adingabeak babesteko protokoloaren erabilerari buruzko egiaztagiria edukitzea eskatzen du.

- 2015etik aurrera, adingabeekin lan egiten duen pertsona orok, entrenatzaileak eta beste kirol profesionalak barne, delitu sexuarekiko buruzko Zigor-urrekariaren Egiaztagiria aurkeztu behar du. Honela, delitu sexualengatik urrekari penalak dituen inolako pertsonak adingabeekin lanik egin ez dezala bermatzen da.

- **Kirolean jazarpenaren eta erasoaren aurreko jarduketa protokoloa:**

Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) eta Olinpiar Batzorde Espainiarrak (COE) kirol arloko jazarpen eta eraso egoerak ekiditeko eta haien aurrean jokatzeko jarduketa protokoloak garatu dituzte, adingabeen babesean enfasia ipiniz.

6. Kirol Araudia

- **Nafarroako Kirolaren uztailaren 5eko 15/2001 Legea:**

Nafarroan kirolaren praktika eta kirol entitateen betebeharrak arautzen ditu.



- **Espainiako Kirol Federazioei buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretua:**

Kirol entitateen eta federazio nazionalen arteko harremanak arautzen ditu.

7. Dirulaguntza publikoak

- **Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra:**

Dirulaguntza publikoen emakida eta zuzenespena arautzen du, fondo publikoak jasotzen dituen edozein entitateri aplikagarria dena.

8. Igerilekuen Osasun Araudia

- **Uztailaren 14ko 209/1997 Foru Dekretua:**

Igerileku publiko zein pribatuen higiene- eta osasun-baldintzak, bai eta uraren kalitatearen kontrolerako sistemak, aldizkako ikuskapenak eta gertakarien erregistroa ere arautzen dituen Nafarroako Foru Erkidegoaren berariazko araua.

- **Nafarroako Osasun Kontseilariaren abenduaren 21eko 222/2005 Foru Ordena:**

Nafarroan estatu mailako araudia osatzen du, instalazio arriskutsuen ikuskapena eta osasun-kontrola arautuz. Legionella antzematekotan jarduketa protokoloen inguruko berariazko jarraibideak ematen ditu.

- **Irailaren 27ko 742/2013 Errege Dekretua:**

Igerilekuen osasun irizpide teknikoak arautzen ditu Espainian. Uraren eta airearen kalitatea, osasun- eta higiene-baldintzak, eta instalazioak mantentzeko betebeharrak ezartzen ditu.

- **Ekainaren 21eko 487/2022 Errege Dekretua:**



Arau honek, 865/2003 Errege Dekretua indargabetzen duena, estatu mailan instalazio arriskutsuetan legionellosis ekiditeko eta kontrolatzeko osasun- eta higiene-irizpideak arautzen ditu. Bakteriak ugaltzeko arriskua duten instalazio guztiei ezartzen zaie, igerilekuak, jacuzziak, osasun-ur beroko sistemak eta hozteko dorreak barne. Honako hau ezartzen du:

- **Gida Teknikoak eta Dokumentu Osagarriak:**

Nafarroak, instalazioetan Legionellaren prebentzioari eta kontrolari dagokionez, Osasun Ministerioak igorritako gidak jarraitzen ditu ere, jarduketa protokoloak eta agerraldiren bat gertatuz gero neurri zentzagarriak barne hartzen dituztenak.

9. Ingurugiroa eta Jasangarritasuna

- **Ingurugiroaren babeserako abenduaren 28ko Nafarroako 16/2006 Foru Legea:**

Ingurune-inpaktua duten jarduerak arautzen ditu, bereziki garrantzitsuak izango dira entitateak baliabide naturalak kontsumitzen edo hondakinak sortzen dituzten kirol instalazioak kudeatzen baditu.

10. Jokabide eta Etika Kodea

- **Gardentasun, informazio publikora sartze eta gobernu onaren abenduaren 9ko 19/2013 Legea:**

Fondo publikoak jasotzen dituzten entitateen gardentasuna arautzen du, bere kudeaketari eta gobernuari buruzko informazioa argitaratzeko betekizuna barne.

5. Interes-gatazken kudeaketa

5.1 Interesen aitorpena

Zuzendaritza-batzordeko eta Gerentziako kide guztiek Batzordean hitzartutako erabakiak, kontratuak edo edozein zenbatekoko erosketak direla eta, zeinahi interes-gatazka posible aitortu behar dute.



Kalteturiko edozein kidek zerikusia duten erabakietan parte hartzeari edo zeinahi neurri sartzeari uko egin beharko dio, ahalik eta ebazpen objektiboenak lortzeko helburuarekin.

Edonola ere, Zuzendaritza-batzordeko edozein kidek, jakinaren gainean egotekotan, Zuzendaritza-batzordeko beste kide batzuen interes-gatazkak salatu beharko ditu.

5.2 Derrigorrezko abstentzia

Kide batek Elkartearen erabakietako batean interes pertsonal bat izatekotan, pertsonalki edota bere senide bati bigarren gradura arte eragiten diona, erabaki horretan eragina duten deliberazio eta bozketetan parte hartzeari uko egin beharko dio.

6. Iruzur, Ustelkeria eta Kapitalen Zuriketaren prebentzioa

6.1 Iruzuraren Aurkako Politika

Elkarteak iruzur, ustelkeria eta beste edozein legez kanpoko praktikarekiko tolerantziarik gabeko politika mantenduko du. Iruzurrezko zeinahi praktika ekidin eta hautemateko barne eta kanpo mekanismoak ezarriko dira.

6.2 Barne eta Kanpo Kontu-ikuskapenak

Urtean behin gutxienez, Elkarteak barne eta kanpo kontu-ikuskapenak gauzatuko ditu Elkartearen baliabideak egokiro kudeatu direla eta gardentasun eta eraginkortasun printzipioei jarraikiz egin direla egiaztatzeko.

6.3 Salaketa Kanala

Elkarteak isilpeko salaketa kanal bat egokituko du bazkide, langile eta kolaboratzaileek edozein jarduera bidegabe edo Compliancearen urratzea salatzen, mendekurik pairatzeko beldurrik gabe. Salaketak Betetze Batzorde baten bitartez ezkutuan kudeatuak izango dira.



7. Erosketak eta Kontratazioak

7.1 Lehia Leialaren Printzipioa

Erosketa eta kontratazio guztiak Lehia Leialaren Printzipioan oinarritu behar dira. Edozein lizitaziotan ezingo zaie inola ere beste parte-hartzaileei erosketaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna urratzen dituen informaziorik eman. 3.000€ baino gehiagoko erosketak hiru kotizazio ezberdinez behintzat babestuak izan beharko dira. Gerentziak Zuzendaritza-batzordeari azalduko dizkio eta honako hau izango da, 7.2 puntuan adierazitako irizpideei jarraikiz, erosketa edo kontratazioa baimenduko duena.

7.2 Hornitzaileen Aukeraketa

Hornitzaileen aukeraketa kalitate, prezio, jasangarritasun eta fidagarritasun printzipioetan oinarrituko da. Zuzendaritza-batzordeko kideei pertsonalki elkartuta dauden hornitzaileekin ez da merkataritza-harremanik onartuko, egokiro arazoitzen bada eta Zuzendaritza-batzordearen gehiengoak baiestu egiten badu salbu.

7.3 Dokumentazioa eta argitalpena

3.000€ baino gehiagoko erosketak eta kontratazioak Elkartearen gardentasunaren atarian dokumentatuak eta argitaratuak izan beharko dira, isilpekoa den edo pribatutasun araudiek babesten duten informazioa izan ezik. Edonola ere, eskatzen duten bazkideek erosketa eta kontratazio hauei buruzko daturik garrantzitsuenen laburpen bat jasoko dute.

8. Elkartearen Baliabideen Erabilpena

8.1 Erabilera Arduratsua

Zuzendaritza-batzordeko eta Gerentziako kideek Elkarteko baliabide materialak, instalazioak eta giza baliabideak modu arduratsuan erabili beharko dituzte, ANAITASUNA KKAE-ari on egingo dioten jardueretara soil-soilik bideratzen direla ziurtatuz.



Era berean, bazkideak ez diren pertsoneri ezingo zaie Elkartera edota bere instalazioetara sartzen utzi, Estatuetan edo Elkarteko Araudian araututa ez dauden Batzordean zehazten diren udaldiko gonbidapenak izan ezik.

Bazkide diren Zuzendaritza-batzordeko edo Gerentziako kideen senideek elkarterearekin dituzten ordainketak egunean eduki beharko dituzte. Osterantzean, Elkartearen araudian jasotako irizpide berdinak aplikatuko zaizkie.

Elkartearen parte izan nahi duen edozein senide edo kideko bezala, kuoten zein hasierako ekarpenen zenbatekoak ordaindu beharko dituzte.

Halaber, inongo larderia edo influentzia saihesteko helburuarekin, bazkideak ez direnentzako denboraldiz kanpoko kanpainen ezarpena Batzordean erabakiko da.

8.2 Erabilera Pribatua Debekatuta

Zuzendaritza-batzordearen eta dagokion kirol saileko arduradunaren aurretiko baimenik gabe, Zuzendaritza-batzordeko edo Gerentziako kideen aldetik Elkarteko instalazio eta baliabideak modu pribatuan erabiltzea debekatuta dago.

9. Gonbidapenen Erregistroa

Onarturiko edozein gonbidapen zehatz-mehatz erregistratu beharko da, ekitaldia, data, arrazoia eta tartekatuta daudenak zehaztuz, Elkartearen gardentasun atarian informazio hau adieraziko delarik.

10. Auditoretza, Gainbegiratzea eta Zigorrak

10.1 Kanpo-auditoretza

Esparru ekonomikoan, Elkarteari urteroko kanpo-auditoretzak burutuko zaizkio baliabideen kudeaketa egokia eta Compliancearen inplementazioa bermatzeko. Auditoretza hauek entitate burujabe batek gauzatuko ditu.



10.2 Betetze Batzordea

Betetze Batzordea Compliancearen politiken aplikazio zuzena bermatzeko eta hala badagokio, zigortzeko arduraduna izango da.

10.3 Arauak Urratzeagatiko Zigorrak

Compliancea ez betetzeak zigorrek ekar ditzake. Ohartarazpen batetik Elkartean duen kargutik kentzeraino. Kasu larrietan, Elkartek erantzuleen aurkako akzio legalak has ditzake, Elkarteko erregimen zigortzaileak Anaitasuna K.K.A.E-ko Estatutueta III. kapituluan adierazten duen bezala.

11. Compliancearen Berrikusketak eta Eguneraketak

Elkarteko zuzendaritza-batzordeak, urtero, programa hau berrikusiko du araudi eta inguruabar berrietara egokitzeko. Edozein aldaketa Zuzendaritza-batzordeak onartu beharko du eta Elkarteko bazkideei jakinarazi. Bertsioa eta azkeneko data aldaketa barne hartuko ditu, bai eta jasotako sinaduren tartea ere.